



“Serora bat bezala ibili nintzen”

Txaro Arteaga I
Emakume baten ahotsa

Jubilatua bai, erretiratua ez.

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Dani Blanco

Hemen 19 urterekin Parisera joan zena!

Aitarentzat eta anaia zahararentzat infernura joatea zen, baina amak asko animatu ninduen. Primeran bizi nintzen arren, mundua ikusteko irrika neukan, eta bizitzan tren bat pasatzen zaizunean hartu egin behar duzu.

Kazetaritzaren trenak geroz eta bagoi gutxiago ote duen...

Lehen irratian artista izan behar zen informazioa baino gehiago, baina gaur egun, informazioak ludikotasuna hil du. Hori bai, ez dakit zer irakasten den kazetaritza fakultateetan, baina kazetariak formazio politiko eta ideologiko handiagoa behar lukete.

Hedabideak dira formazio politikoak!

Eta bakoitzak nondik egiten duen herren jakinda egin behar zaie kasu. Feministoi itsuak izatea leporatzen zaigu, baina ez, gure bizipen eta sinesmenen betaurrekoetatik irakurtzen dugu mundua.

Emakumeen aurkako tratu txarrak prentsak ongi tratatzen dituen galdetu behar nizin, hain justu.

Telebista desastre hutsa da horretan. Noiz esan behar dugu psikopata eta gaixo mental gutxi, eta “normal” itxurako “anormal” asko dagoela gurean?

Beste gaixotasun mental batzuk sendatzen ditugunean, akaso?

Mikro-matxismoak denetan daude, baita nire sukaldean ere. Erroak saneatzen ez dituguno alferrik kimatuko ditugu adarrak. Erabateko mentalitate aldaketa behar dugu, genero-sis-

tema batean gaudela ohartzetik hasi eta heziketa eraldatzeraino.

Manifestazioak ilegalizatzen eta alarde sexistak baimentzen diren herri batean gaudela ahaztuta, ala?

Bozka kontu bat da dena. Orain dela 50 urte esaten genituenak berrikuntza bezala saltzen badizkigute zer egin behar dugu? Bai herri-gintzan, bai generogintzan, noiz arte erabakiko du beste batek nigitik?

Ikusiko duzu lehendakari emakume bat eta Emakundeko zuzendari gizonezko bat izendatzen dituztenean...

Botere politikoa debalututa dagoelako utzi digute emakumeoi mundu horretan sartzen. Zergatik uste duzu botere ekonomikoa eskusiboki maskulinoa dela? Emakundeko zuzendaritza gizonezko baten esku uztea berriz, enpresarioa sindikatu-buru jartzea bezalakoa litzateke.

Baina ez al ginen hamaika ikusteko jaio?

Sartzen utziz gero lekua egingo nuela pentsatuta, serora bat bezala ibili nintzen jendea banan-banan konbentzitu nahian. Baina nola ireki begiak ikusi nahi ez duenari?

Ez kexatu, zuri behintzat jubilatzen utzi dizute eta!

Ondo merezita! Hori bai, bizitza guztia pasatzen duzu egin behar duzuna egiten, eta egin nahi duzuna egiteko denbora daukazunean, ez dakizu zer egin. Gure ondorengoei guk bukatu genuen puntuan hasteko modua egingo bagenie, sikiera... ■